

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen seme-alaba adin txikien egoera juridikoaren azterketa: Legeria, Prozedura Judiziala, Eta Zerbitzu Publikoen eremua eta mugak

Egilea

Begoña Fernandez Aranaz

Gradua

Zuzenbidea

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna

Laburpena

Lan honen helburua, hurbilpen bat egitea izango da adin txikikoek genero-indarkeria kasuetan duten egoera legalari, prozesalari, eta zerbitzu zein baliabideei dagokienez. Oro har, adingabearen interes gorena babestea printzipio gidatzailea da, beraz, genero-indarkeria egoeretan babes hori nola bermatzen den landuko da. Lan hau hiru kapitulu nagusitan egongo da banaturik: batetik, biktimen egoerak eta eskubideak barnebiltzen dituen marko normatibo orokorra; bestetik, biktimek, salaketa jarriz gero, abiarazi daitezkeen prozedura judizialak eta euren arteko interkonexioa; azkenik, biktimen beharrezanean erantzuteko egun eskuragarri dauden zerbitzuak. Oihartzun eta gaurkotasun handiko gaia izanik, gero eta gehiago lantzen eta kontuan hartzen da; hala, kasuan kasu adingabearen interesa bermatzeko agertzen diren oztopo oro gainditu, zein berau egoki ebazteko, nahitaezkoa da lan honetan aztertuko diren hiru atalen ezagutza izatea, eta aldi berean, kritika eraikitzailea azaleratzea.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Gradu Amaierako Lanaren aukeraketaren arrazoi nagusia, gaiari ematen zaion garrantzia apalean dago. Hau da, ageri-agerikoa da genero-indarkeriaren biktima emakumeak direla, egunerokotasunean horren adierazpen ugari bizitzen dutelarik, lanean, etxean edota kalean. Baina, jarrera mespretxagarri hori behin eta berriz ikusi eta jasaten duten seme-alabak ere badaude. Sarri askotan itzalpean edo bigarren plano batean geratzen da hauen babesa,



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



biktima gisa hartu beharrean, indarkeriaren albo kaltetzat soila direlarik. Egoera lazgarri honek eraman ninduen hautaketa egitera eta genero-indarkeria biktima diren adingabeen egoera normatibo, juridiko eta benetakoa zein diren gorpuztera. Finean, errealitatea islatzearekin eta horren gaineko kritika eraikitzailearekin baino ezingo baita aurrera pausoa eman; lan honek, beraz, bide luze horretako ekarpen xume bat izatea du xede.